

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	ONGIZATE BATZORDEA		
IRAUPENA	ORDU 1	EGUNA	2019-07-09
GAIA	-	DEIALDIA	19:00
PARTE HARTZAILEAK			
Iñaki Etxezarreta	Endika Igarzabal	Arantxa Bidegain	Iker Etxezarreta
Peio Goikoetxea	Eñaut Igartzabal	Eli ELgarresta	Leire Urbieta
Ezin etorria adierazi dutenak: Jabier Garcia			
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK	ARDURADURA	NOIZKO
HAURTZAINDEGIA	<ul style="list-style-type: none"> Datorren urteari begira, irekita mantentzeko ahaleginak egiten ari da udala. Irekita jarraituko du irailean. 		
ZABORRAK	<ul style="list-style-type: none"> Denbora darama udalak errefusaren ontzia ixtea erabakita baina itxi gabe. Horregatik erabaki hau martxan jarriko da Gabiriako gunee guztietan: Herrigunean, Ugaran auzokoan eta Aztirian. Kontenedore marroia jarriko da falta den guneeetan eta errefusaren ontzia itxi, astean behin irekitzen delarik. 		
ADINEKOENTZAT TOPAGUNEA	<ul style="list-style-type: none"> Irailetik abendura arteko aurrekontua eskatu zaio LAR enpresari, martxan jarraitzea baita helburua eta asmoa. Kale pare bat egin ditu enpresa honek, eta beraz, seriotasun pixka bat eskatuko zaie. Nahiz eta hasierako kopurua ez mantendu, taldetxo finko bat osatu da eta oso gustura dabilta. 		
GOI TENTSIOKO LINEA	<ul style="list-style-type: none"> Guztira 3 proiektu daude: Gueñes-Itsaso, Dicastillo-Itsaso eta lehendik dagoen linea baten repotentziazioa, Itsaso-Orkoi. Gueñes-Itsaso: Oso aurreratuta dago proiektua eta lanak laster hasiko dira. Dicastillo-Itsaso: Proiektua berriro martxan jartzera doaz. Iruñan egin zen bilera batean izan ginen bertan erabaki bezala, alegazio bat aurkeztu da Udal modura proiektuaren aurka. 		
FESTETARAKO BASOAK	<ul style="list-style-type: none"> Udalaren basoak herriko elkarte eta tabernei dohainik uztea erabaki da, orain arte kobratu egiten zitzairen arren. Ulertzen da helburua berrerabiltzea bada, udalak esfortzua egin behar duela nahiz eta diru pixka bat galdu. 		
HURRENGO BILERA: irailak 24, 19:00tan			